

## Musikaren indarra geldiezina da

Eguraldi txarra tarteko, Jalgi Kafe Antzokian egin dute Parapetasonik musika jaialdiaren bosgarren edizioa / 8-9

**Aurrera jarraitzen du udako jaien egutegiak: Basaundi festa giroan murgilduko da bihar** / 2

**Sare elkartearen bizikleta itzulian parte hartu dute lasarteoritarrek** / 3

**Getaria-Zarautz itsas zeharkaldian parte hartu dute 25 lasarteoritarrek** / 10

**Naroa Furundarena eta Maider Rekondo atletak, Euskadiko txapeldun Durangon** / 12



## Suak kiskali ditu akusatuak

Santa Ana eguneko parodiak 69 urte bete ditu aurten; euria ez da oztopo izan / 6-7

TXINTXARRI

**MERKEALDIA**  
VARILUX SOLUTIONS-en

ZURE 2. LENTE PROGRESIBOAK

# BARNE

Gure betaurreko guztiak  
bilduma berrietakoak dira



R.P.S. 175/15 I.L.G.

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.  
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
LASARTE-ORIA

**MULTIOPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com



# Basaundin dena prest dute saninazioetarako

Udako jaien egutegiak aurrera jarraitzen du. Santa Anako ospakizunen ondotik, Basaundi Bailarak hartuko du Oriako karmenen lekukoa. Musika, haur jolasak, kirola... adin eta gustu guztietako jarduerak beteko dute auzoa asteartean eta asteazkenean

## Txintxarri

Santutik santura izan ohi dira udako jaiak. Karmengo Ama eta Santa Ana pasatuta, San Inazio da hurrengoa. Basaundi Bailarako bizilagunak debozioz itxaroten dute uztaileko azken eguna, haren bueltan ekimenez betetzen baitute auzoa Buruntzazpi elkarteak eta La Esperanza bizilagun elkarteak.

Bezperan hasiko dute egitaraua, laburra, baina oparoa. 17:30ean hasita, apar festa izango da tenis pistan, eta ondoren, xaboi hondarrak kentzeko, ur-pistola eta globo guda egingo dute Oria Txiki parkean. Modu azkarrean festaz blaituko dira txikienak; helduxeagoek zumba eta jumping masterclassak dituzte aukeran frontoian, 18:30ean hasita. Musikak ezin du hutsik egin inolako ospakizunetan.

Kale girotzea Gautxori txarangak egingo du plaza eta inguruetan. Dantzarako aproposagoak izan daitezkeen doinuak, aldiz, Ibai Berriak taldeak ekarriko ditu auzora, 23:00etan hasita leku berean egingo duten berbenan.

Biharamunerako erritmoa hartuta, askotariko jarduerak egingo dituzte etzi, adin eta gustu guztietarako egokiak. Usapalek babestutako martxa arautua plazatik abiatuko da 09:00etan,



Apar festa izango da bi egunetako egitarauaren lehen jarduera. TXEMA VALLES

eta ordu berean, Zapal zelaietan galeper jaurtitzea egingo dute. Eguerdian, berriz, txoko herrikoian ariko dira frontoian; plazan, berriz, bote nahiz toka txapelketa egingo dute, 12:30ean.

## Lehia eta jolasa

Txikienentzako jardueren gunea frontoia izango da. 11:00etan hasita haur jolasak egingo dituzte goiz osoan. Arratsaldean, aldiz, aurpegiak margotzeko tailerra eta gaztelu puzgarria jarriko dituzte, 17:00etan. Saltoka ibili ondoren indarberritu daitezzen, askari goxo bat ere emango diete.

Santuaren eguna izanda, fedea ere bere tarte izango du. Meza nagusia egingo dute Karmengo kaperan, Amaia Dorronsoro organistak lagunduta.

Bazkari herrikoian menu goxoaz gozatuko dute Buruntzazpi elkarteak, eta indarberrituta, mus txapelketa jokatu dute Basaundiko plazan, 16:00etan. Kartetan beharrean, sukaldean esku ona dutenek jarraian egingo duten patata tortilla lehiaketan parte har dezakete.

Jaiei amaiera emateko, Kultur Kale Zikloaren barruan, Adara y los Nylon taldeak kontzertua emango du, 19:30ean.



TXINTXARRI

## Harrerako haurrei ongietorria

Oporrak bakean egitasmoaren baitan udara Lasarte-Orian igaroko duten lau haurrei harrera egin diete udal ordezkariak. Haurrekin elkartu ziren udalbatza aretoan Jesus Zaballos alkatea, alderdi guztietako zinegotziak eta Gizarte Zerbitzuetako arduradunak hilaren 15ean. Euskaraz nahiz gazteleraz ongi etorria eta opari bana eman zizkien udal gobernuburuak.



TXINTXARRI

## Tragedia komedia bilakatuta

Barsanti konpainiaren *Kale gorrian* antzezlanak barre algarak eragin zituen ostiralean Okendo plaza inguruan bildutako lasarteoriarren artean. Nahiz eta Marino eta Begoñaren etxegabetzea gertakari tristeia izan zitekeen, bertaratutako polizia zein bi protagonisten gorabeherei esker, ikusleek irribarre batekin amaitu zuten ikuskizuna.

## Uztailarekin batera amaituko dira Ttakunen Udako Txokoak

Amaiera jaialdia eta apar festa egingo dituzte gaur eta bihar. Hamaika abentura bizita joango dira haurrak

## Txintxarri

Hilabete amaiera gertu da, eta horrekin batera, abenturaz eta algaraz betetako Udako Txokoena. Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako udalekuetan haur eta gaztetxoek ez dute aspertzeko betarik izan. Hamaika kontutan

ibili dira. Antzerkian, sukaldean edota talogintzan saiatu dira; kirola erruz egin dute, futbola, pilota, hockeya, gimnastika... udako beroa aritzeko ur eske ere ibili dira herrian barrena, blai egin arte. Eta, nola ez, sanferminetako entzierroan

"zezen" pare berezi baino bereziago baten aurrean korrika egin dute.

Jada oroitzapen bilakatutako jarduera horiez gainera, hilaren 19an neska-mutil txikienek Porrotx pailazoaren eta Jalgune elkarteko lagunen bisita jaso zuten. Barre, kanta eta dantzaz betetako goiz aparta igaro zuten.

Bizipena biribiltzeko, dantzarako trebezia erakutsiko dute gaur Okendon egingo duten amaiera jaialdian. Bihar, berriz, ohiturari jarrai, apar festa egingo dute Isla plazan.



Porrotxen bihurrikeri eta burutazioekin goiz aparta igaro zuten txikiak. TXINTXARRI



Lasarte-Oriako haibat lagun batu ziren Errekaldetik hasita Luhuso eta Zarautz lotzen zituen etapa egiteko. TXINTXARRI

# Pedalkadaz pedalkada presoen eskubideen alde

Luhuso eta Gernika batu ditu Sare Herritarrak antolatutako txirrindu birak. Bigarren bira honek parte hartzaile gehiago izan ditu. Igaro dituen herrietan ere babesa jaso du jarduerak. Ipar Euskal Herria eredu, presoen auziari konponbidea eman nahi diote Hegoaldean ere

## Txintxarri

Beroak ez ditu gelditu txirrindua hartu, kaskoa lotu eta presoen eskubideen alde pedalei eragiteko asmoa zuten pertsonak. Luhusotik Gernikara Sare Herritarrak antolatutako bizikleta bira egin dute uztailearen 19tik 21era artean. Pozik agertu dira antolatzaileak izandako harrerarekin.

Lehen etapa, Luhuso-Zarautz, Lasarte-Oriatik gertu igaro zen, Errekaldetik, hain zuzen ere; eta lasarteoriatarrek ez zuten hutsik egin. Ostiralean 16:45ean zuten hitzordua Okendo plazan eta talde-argazkia atera ostean

gogotsu ekin zioten bideari. Errekalden Donostiatik zetorren martxarekin bat egin zuten.

Behin martxara batuta, hiru aukera izan zituzten herritarrek: Usurbilen martxa utzi eta Zubietatik Lasarte-Oriara itzultzea, Orioraino jarraitu eta trenez herrira itzultzea edo Zaurautzeraino jarraitu, bertan trena hartu eta Lasarte-Oriara itzultzea.

## Espetxe politika aldatu

Bide osoan egindako adierazpenetan antolatzaileek Ipar Euskal Herrian gizarte

zibilak egindako lana nabarmendu dute, eta presoak etxeratze elkarlana beharrezkoa dela azpimarratu dute. Iparraldean emandako bidea adibide gisa hartu nahi dute Hegoaldeko espetxe politika aldatzeko.

Bestalde, bigarren edizio honek parte hartzaile gehiago izan ditu. Luhusotik 50 bat txirrindulari atera ziren eta muga igaro ostean, kopurua handitu egin zen. Antolatzaileen datuen arabera, eguneko 90 bat pertsona izan dira tropelean. Igaro diren herrietako jendeak ere haien babesa erakutsi die.



NEURE KABUZ

ASIER ODRIOZOLA

## Turistak

Baten batek pentsa lezake errazera jotzea dela udarako zutabeen oporrez idaztea. Ez zaio arrazoirik falta. Hala ere oporrez hitz egingo dut. Edo nahiago baduzu, oporren ondoretako baten inguruan. Lasartera turista gutxi etorri izan da historikoki. Garai batean zaldi karrereretara udaran etortzen ziren zaldijabeek eta berdin jockeyek egiten zuten turistarena: Madrilgo matrikuladun kotxez josten zuten herria. Exotikoa zen eta Lasarteri halako kutsu udatiarra ematen zion.

Hortik aparte, kasu bakar bat dut gogoan, motxila bat bizkarrean zeraman sujetuarena. Hura ikusi eta pentsatu nuen galdu egin zela eta berez ez zuela gure herrira etorri nahi. Aspaldiko kontuez ari naiz. Gaur egun turismo boom handi bat gertatu da eta horrek herri eta batez ere hirietako izaera moldatu du. Donostiaren adibidea oso garbia da eta bertako asko kezu da turistaren eragin traketsagatik. Ondo dago gogora ekartzea ordea justu egun hauetan gutako asko ere beste leku batzuetara joanak garela turista moduan eta ez garela bisitatzen gaituztenak baino hobek. Hor uzten dut hausnarketa, sesiorako gogoz. Ondo pasa!



LASARTE-ORIAKO UDALA

## Rafaela Romero, alkatearekin

Jesus Zaballos alkatearen eskaerari erantzunez, Rafaela Romero mugikortasun eta lurralde antolamendu foru diputatua Lasarte-Orian izan da. Biler horretan udalerririk dituen behar eta arazoengatik inguruan mintzatu dira. Landutakoen artean dago Txikiardiko bidegorria egitea, esate baterako.

# GIDA KOMERTZIALA

[www.txintxarri.eus/gida](http://www.txintxarri.eus/gida)

Denda, taberna, jatetxe edo enpresa bat duzu?

- Gida osatua, eguneratua eta erabilgarriena.
- Lasarte-Oriako denda eta enpresen telefono gida.
- Sarean, mugikorretan, tabletan...

txintxarri

GIDAN PARTE HARTZEKO:

publizitatea@ttakun.eus | 943 37 14 48 (106) | 646 82 44 66 | Geltoki kalea, 4

berria!



42€  
urtean  
(bez barne)

**ISLANDIA**  
(itsas bidaia)

**NORVEGIAKO FIORDOAK**  
(itsas bidaia)

**ERRUSIA**

**ZETAREN BIDEA**  
(Uzbekistan)

**NOAA BIDAIAK**  
T.: 943 373 613  
info@noaa.eus  
Hipodromo Etorb. 10,  
Lasarte-Oria

**ESLOVENIA & ISTRIA**

**TALDE BIDAIAK**  
Denboraldi aurrerapena

## TXINTXARRI-K ETA TTAKUN KULTUR ELKARTEAK EGINDAKO ZOZKETEN IRABAZLEAK



Jibiri jibiri argazkiaren egile Janire Arroyo, eskuinean, bertan ageri diren Iratxe Urkiarekin, ezkerrean, eta Intza Alkainekin. TXINTXARRI



TXINTXARRI

### Ttakunkideak, Aquariumera

Ttakun Kultur Elkarteak hilabetero bere bazkideen artean kultur jardueretarako sarrerak zozkatzen ditu. Uztailean udarako plan aparta izan daitekeena aukeratu du: Donostiako Aquariumerako bi sarrera. Interesa agertu dutenen artean, Ibon Urdanpilleta izan da irabazlea. Marrazo eta arrain artean murgilduta egun atsegina pasa dezazuela!

# Oporrak hartu aurretik, garaileekin zorrak kitatu

Txintxarrik eta Ttakun Kultur Elkarteak azken asteotan egindako lehiaketa eta zozketen sari banaketa egin dute egunotan. Jada, esku artean dituzte zorioneko guztiek batean edo bestean egokitutako saria, oporraldian gozatzeko aproposak

### Argazki irabazlea



Sorgin jaien mural aurrean ateratako *Jibiri jibiri* argazkiak irabazi du sanpedroetako lehiaketa, 58 botorekin. 50 euroko sariarekin Larre jatetxean otordua egingo dute Janire Arroyok eta bi kideek.

### 'Kabitu ezina' liburuaren irabazlea



TXINTXARRI-k Aintzane Usandizaga idazle lasarteoriatarra elkarriketatu du hilabete hasieran. Hitzordua baliatuta, bere lehen liburuaren ale bat sinatzeko eskatu genion egileari, gure irakurleon artean zozkatzeko. Izena eman duzuen guztion artean, zoria Bakar Usandizagaren alde egon da. Berak eskuratu du sinatutako *Kabitu ezina* ipuin bildumaren alea. Zorionak eta gozatu irakurketa!

ESKERRIK ASKO  
UDAKO TXOKOEN PUZZLEA  
OSATZEN LAGUNDU  
DIGUZUEN GUZTIE!

#### Familiei

Haurrei, gurasoei, amon-aitonei...

#### Hezitzaile taldeari

Noelia, Ander, Julene eta aurtengo hamaika abenturen gidariak izan zaretenoi.

#### Herriko eragileei

Oriarte Institutua, Oriartekide, Salto Gela, Kukuka, Atsokabarreko zahar egoitza, Zabaleta Auzolan Elkarte, Xumela, Sasoeta-Sasoian, Eguzki Aretto futbola, Beltza Errugbi taldea, LOKE Gimnasia erritmikoko taldea, Katxiporreta, Jalgune, Etxezarreta harategia, Aterpea, Ormazabal loradenda, Ana ileapaindegia, Olmi Mertzera, Marbell ileapaindegia, Urruzola Mertzera, Noaoa bidaia, Arregui elektrizitatea, Saito Gimnasioa, Berasategi kafeak, Izaguerrri+C loteria, Bideo lagunak, Marian Olaizola ileapaindegia, Sukoa burdindenda, Buenetxea Kafetegia, Ola marko denda, Abreu bazarra, Iturbe oinetako denda... Isaac Farre, Miren Zumeta, Rosa Elizondo, bertsolariak, Miriam Arillaga, Xonel Bujan, Porrotx, Garazi Santesteban, Faktoriako eta Kuadrillategiko kideak... Diario Vasco eta Txintxarri Aldizkaria





Herritar ugari hurbildu da Okendora artisauen produktuak ikustera. TXINTXARRI



Artisauak lanean ikusteko aukera izan da hainbat momentutan. TXINTXARRI

# Jai giro ederra Santa Ana azokan

Santa Ana eskulangintza azokaren 35. edizioa ospatu da Lasarte-Orian. Herritarrek artisauak jo eta ke lanean ikusi dituzte eta txikiek haien lanak egin dituzte tailerretan. Elkartasunarekin zerikusia duten proiektuak ere izan dira aurtengoan

## Txintxarri

Lainotua eta sargori egon arren, herritar ugari hurbildu da Santa Ana 35. eskulangintza azokara. Espero ziren artisau baino gutxiago etorri dira, antolakuntzarekin ez diren arazoengatik. Baina horrek ez du jarduna oztopatu eta askotariko produktu eta jakiak ikusi, dastatu eta erosi ahal izan

dituzte herritarrek Okendo eta Mercero plazetan.

Zapatak, saskiak, pilotak, zur lanak, ehoziriak... herriko eta hainbat lurraldetako artisauak lanean ikusi dituzte herritarrek.

Etxeko txikiak ere artisau izan dira egin diren hiru tailerretan. Saskiak, egurrarekin egindako eskulanak edo album bat egin dituzte.

Begisare, Gipuzkoako erretinosi pigmentario elkarteak ere izan du bere postua. Lepokoak, diru-zorroak... saldu dituzte funtsak biltzeko eta gaitz honi buruzko informazioa eskaini diete herritarrei.

Kalean ere giroa aparta izan da. Santa Ana pintxo berezia eskatu ahal izan da sei tabernatan. Herritar ugari bakailoa oinarri duen pintxo dastatu dute.



Etxeko txikiek hainbat eskulan egin dituzte egurrarekin. TXINTXARRI



Pateak, erroskilak, gazta... denetarik dastatu ahal izan da Mercero plazako postuetan. TXINTXARRI



Herriko taldeek ere izan dute beren txokoa. Zurmailu taldeko kidea irudian. TXINTXARRI

# Eguraldi txarrari, Santa Ana

## Parodiak 69 urte bete ditu

Euriak eta Marchena epaileak ezin izan dituzte salbatu: sutan kiskali dira Patxi Zaharra eta Txarra eta Juan Cardos de Bribon y Bribon akusatuak, urtean zehar Lasarte-Orian egindako barrabaskeriengatik eta triskantzengatik. Ostiral gaueko euri zaparradek ez zituzten aktoreen animoak itzali, eta deabruak prestatutako sutzarra ere ez. 69 urte bete ditu aurten Santa Ana eguneko parodiak. Bete ditzala beste 69 ere, gutxienez.

Egunean zehar egin ziren ekintza gehiago. Felix Garitanok gidatu zuen Brigitarren komentuko meza. Bukatzean, hamaiketako egin zuten lasarteoriatar ugarik Elizatze plazako arkupeetan. Bitartean, dantza egin zuten Erketz EDTko kideek karkaban, eguerdian. Bazkaltzera joan ziren gero. Arratsaldean, pala partidak Loidibarren pilotalekuan. Erakustaldia eskaini zuten Mindara elkarteko kideek. Gero, final handia: Axular Iparragirrek eta Gari Arteagak jantzi zituzten txapelak. 16-23 irabazten ari zirenean, Jon Pagolaren bikote Xenki Astiazaraneke min hartu zuen, eta erretiratu egin zen.



Ttakun KÉren eskutik, herritar ugarik egin zuten hamaiketako San Pedro Elizaren arkupeetan. TXINTXARRI



Santa Ana karkaban dantzatu zuten Erketz EDTko kideek eguerdian, euriak tregoa apur bat eman zuenean. TXINTXARRI



Aurtengo parodiako aktore taldeak talde argazkia atera zuen Jalgi Kafe Antzokiaren kanpoaldean, X



Goian, ostiral goizeko meza. Behean, Mindara elkartekoak, palan jokutzen. TXINTXARRI



irimiriri elkartera afaltzera joan baino lehenago. TXINTXARRI



Suhiltzaileak herrian zehar ibili ziren lasarteoriatarrek bustitzen, ur-pistolak eskuetan. Primeran pasa zuten. TXINTXARRI



Xenki Astiazaran izaten ari zen finaleko onena. Azpian, parte-hartzaile guztiak. TXINTXARRI



Atsobakar egoitzako langileak omendu ditu aurten antolakuntzak. Irudian, Iau, Lierni Rekondo eta Arantxi Genaurekin batera. TXINTXARRI



Juan Cardos de Bribon y Bribon, Patxi Zaharra eta Txarrari eskatzen mirari bat egiteko. Ilaran, zain, mikeleteak eta epailea. TXINTXARRI

# Parapetasonik V jaialdia

Lana, konpromezua eta batasuna, musika jaialdi bat baino askoz gehiago



Taldearen produktuak erosteko aukera izan zen. TXINTXARRI



Eguraldiak bazkaria Xirimiri elkartearen egitera behartu zituen antolatzaileak. TXINTXARRI



Rodeo laukote zestoarrak ireki zuen jaialdia. TXINTXARRI



Iker Eleizegi antolakuntzako kideak prestatu zuen bazkaria. TXINTXARRI



Mataróko Bellako taldeak Jalgi txiki utzi zuen. TXINTXARRI





Hardcore Hits Cancer elkarteak Parapetasonik jaialdia babestu zuen.. TXINTXARRI



Overloud donostiarrek Jalgi eszenatokian. TXINTXARRI



Lampr3a taldeko bonbo bikoitzak Jalgi Kafe Antzokiko paretak gogor astindu zituen. TXINTXARRI

Euriak lekualdaketak egitera behartu zituen antolatzaileak. Bazkaria Xirimiri elkartean egin zen, eta kontzertuak, berriz, Jalgi Kafe Antzokian.

5 urte egingo dira Parapetasonik jaialdiak azkeneko aldiz kaleak astindu zituela. Lasarte-Orian Euskal Herriko doinu gogorrenen bozgorailu zen jaialdia isildu egin zen 2014ko irailean. Baina ez betiko.

Parapetosa atzean utzi eta Andatza plaza hartu zuten pasa den larunbatean metal, hardcore eta rock doinuek. Inguruko herrietako musikazaleez gain, Gipuzkoako txoko guztietatik hurbildu ziren jaialdiaren birsortzeaz gozatzeraz.

Jaialdia indartsu itzuli zen. Nazioarteko hainbat jaialdi eta aretoetan ibilitako Bellako talde kataluniarra oholtzaratu zen Jalgi eszenatokian.

Bartzelonako boskoteaz gain, Lampr3a, Overloud, Legen Beltza eta Rodeo taldeek jo zuten jaialdiko bostgarren edizioan.

Azken orduko aldaketak zirela eta arratsaldeko zazpiak aldera hasi ziren kontzertuak. Rodeo talde zestoarrak eman zion hasiera jaialdiari. Overloud donostiarrek jarraitu zuten, Bellakok eman zuen hirugarren kontzertua, hauen lekukoa Lampr3a hirukoteak hartu zuen eta jaialdiari amaiera Legen Beltza Azeitiko talde mitikoak eman zion.

Jalgi Kafe Antzokia txiki gelditu zen Parapetasoniken itzuleran eta jaialdiak indarra soberan duela erakutsi zuten. Askok, seigarren edizioaren zai gelditu ziren, ziur.

Parapetasonikek, gainera, *Izateen Inauteria* argazki erakusketa antolatu du Oreaka tabernan. Bertan, Begipuntuan argazkilariak hainbat kontzertutan egindako argazkiak egongo dira ikusgai Abuztu amaiera arte.



Izateen Inauteria, Begipuntuan argazkilariaren erakusketa, Oreaka tabernan. TXINTXARRI



Legen Beltza talde mitikoak itxi zuen jaialdia. TXINTXARRI



Aurtengo Getaria-Zarautz itsas zeharkaldian 2.554 igerilarik parte hartu dute. 25 lasarteoriatar iritsi dira helmugara. JUAN LUIS ROMATET

# Getaria-Zarautz, ezinbestekoa egutegian

Milaka igerilarik egin dute Getaria-Zarautz itsas zeharkaldia aurten. Helmugaratu direnetatik 25 lasarteoriatarak dira. Bizkorrenak Irati Arzalluz eta Xabier Elizegi izan dira. Antolatzaileek beste proba bat gehitu dute: Zarautz-Getaria-Zarautz, 5.200 metrokoa

## Txintxarri

Igerian aritzen diren kirolariek hainbat egun markatzen dituzte gorritz egutegian. Horietako bat izan da uztailaren 21a, igandea, Getaria-Zarautz itsas zeharkaldia jokatu zen eguna. Urola Kostako bi herri horiek batzen dituen proba da parte-hartzaile gehien erakartzen dituen. 2.850 metro dituzte luze. 2.554 igerilari iritsi ziren Zarauzko portuko helmugara; horietatik 25 izan ziren lasarteoriatarak.

Herritar bizkorrenak Irati Arzalluz eta Xabier Elizegi izan ziren: 39.29ko eta 39.40ko denborak egin zituzten, hurrenez hurren. Bereziki nabarmentzekoa da Buruntzaldea IKTKo igerilari gazteak egindako lana: bosgarren postua eskuratu zuen bere kategorian. Irabazleak baino hiru minutu eta 34 segundo gehiago besterik ez zituen behar izan ibilbidea osatzeko. Andrea Dominguez madrildarra izan zen azkarrena, 35.55eko denbora eginda. Podiuma Amaia Iriarte

burlatarrak (36.00) eta Luisa Mar Morales kanariarrak (36.47) osatu zuten. Gizonezkoen kategorian, hauek igo ziren podiumera: Pol Gil madrildarra (33.25), Haigor Aranguren donostiarra (34.39) eta Marcos Godoy madrildarra (34.42).

## Zarautz-Getaria-Zarautz

Itsas zeharkaldi horren antolatzaileek beste proba bat gehitu dute egutegira aurten: Zarautz-Getaria-Zarautz. Uztailaren 20an egin zuten proba hori. Zarauzko portu parean hasi, Getariara iritsi aurretik buelta eman eta Zarauzko portuan bukatu. Guztira, bost kilometro eta 200 metro. 403 igerilarik parte hartu dute.

Bi herritarrek jokatu zuten zeharkaldi hori: Xabier Elizegik eta Jose Ignacio Galarragak. 1.12.38ko denbora egin zuen Elizegik, eta 36. postua lortu. Galarragak 1.24.04 behar izan zuen ibilbidea osatzeko; 122. postuan iritsi zen helmugara.

## Herritarren sailkapena

### Getaria-Zarautz

- Irati Arzalluz 39.29
- Xabier Elizegi 39.40
- Joane Arzalluz 42.16
- J.V. Martin 43.33
- Andoni Illarreta 45.02
- Gari Lopetegi 46.43
- Laura Igea 51.17
- Oscar Gil 55.07
- Ibai Izagirre 56.14
- Mikel Izagirre 56.57
- Naroa Salsamendi 59.50
- David Morales 59.57
- Eli Arteaga 1.00.21
- Ignacio Uhalte 1.00.49
- Iratxe Beitia 1.00.52
- Blanca Azqueta 1.01.31
- Ander Baile 1.01.32
- Gorka Olaiz 1.01.45
- E. Mendiluze 1.03.26
- N. Mendiluze 1.03.29
- Beñat Murua 1.03.30
- Arkaitz Naya 1.03.56

## Larunbatean jokatu du Realak lagunartekoa, Osasunaren

Aurrendenboraldiari ekin berri diote txuri-urdinek; bost sasoi daramatza taldean Iraia Iparragirre herritarrak

### Txintxarri

Ilusioz beteta ekin dio Realak aurrendenboraldiari. Erreginaren Kopa irabazi zuten iaz, eta klubak erabaki du proiektuan denbora eta diru gehiago inbertitzea. Lau jokalarik fitxatu ditu orain arte: Barbara Latorre aurrelaria, Carla Bautista hegalekoa eta Ana Tejada eta Lucia Rodriguez defentsak.

Berriak dira aurpegi batzuk, eta ezagunak beste asko. Esate baterako, Nahikari Garciarena. Taldeko izarrak 2021eko ekainera arte berritu du kontratua. Iraia Iparragirre herritarrak ere jarraitzen du taldean. Bosgarren denboraldiari ekin dio eskuin hegaleko atzelariak.



Iraia Iparragirre, jokatu du. REAL SOCIEDAD

Irailaren 8an, igandea, hasiko du liga Realak. Bost lagunarteko jokatu ditu aurretik. Lehena, larunbatean, Osasunaren aurka, 11:30ean Bergaran.




TXINTXARRI

## Lehia estua eta giro bikaina

Udako denboraldiko zazpigarren jardunaldia Hipodromoan: lehia estua eta giro bikaina lasterketa guztietan. Gipuzkoako Foru Aldundia Saria izan zen arratsaldeko garrantzitsuena. Vaclav Janacek jockeyak gidatutako 'Liberri' zaldia izan zen azkarrena; azkeneko metroetan aurreratu zituen aurkariak.

## Europakorako prestatzen

Espainiako 18 urtez azpiko selekzioarekin entrenatu zuen Alex Saleta herritar gazteak pasa den astean, Madrilan. Abuztuaren 17an hasiko den Europako txapelketarako prestatzen ari da Gorka Buenok zuzendutako taldea. Babyauto Zarautz taldean jokatu du Beltzak eskolako harrobiko jokalariek.



BELTZAK



# GREMIOEN GIDA 2019

*Arreta profesionalena, zugandik gertu*



**Elektrizitatea**



**Kristaldegi eta leihoak**

**ELECTRICIDAD ARREGUI**

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA  
Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21  
600 857 586 - www.electricidadarregui.com  
tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)

**DEL ORIA KRISTALDEGIA**

- Ispiluak
- Beira apaingarriak eta alakatuak
- Merkataritza instalazioak
- Dutxa itxidurak
- Kristalgintza orokorra

Uistin Kalea 11 (Zubieta Plaza) Lasarte-Oria  
Tlf.: 943 36 23 52 607234522  
www.cristaleriadeloria.com

**ISU**  
27. urteurrena

*Mota guztietako leiho, pertsiana, manpara, toldo eta dekorazioko profesionalak zure zerbitzura*

ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURA, ALUMINIOA, PVC ETA POLIURETANOA

Kale Nagusia, 46 behea • Lasarte-Oria  
Tel. 943 36 64 95 • Faxa: 943 36 52 22  
ventanas\_isu@hotmail.com  
Pol. Ugaldea, 21 • 6 lokala, Usurbil

**ANORGA TXIBI S.L.**  
KRISTALDEGIA

- Komertzial instalazioak
- Beira bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
- Ispiluak
- Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA  
943 37 17 33 • 610 45 93 45  
www.cristaleriaanorgatxiki.com



**Barne-Diseinua**



**Iturgintza**



**Igeltseritza**

**SUGATE**  
SUKALDEAK ETA BARNE-ERREFORMAK

Pintore kalea 5, Lasarte-Oria  
Tel: 943 36 14 71  
sugatesukaldeak@gmail.com  
www.sugate.net

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
- AURREKONTUA KONPROMEZURIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- ETXETRESNA ELEKTRIKO MARKA GUZTIAK

**ILLARRETA**  
ITURGINTZA  
IGELTSERITZA

- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSERITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ETXEBIZITZEN ETA LOKALEN BERRIKUNTZA OSOA

**BULEGOA:** Geltoki kalea 14, Lasarte-Oria  
Tel. 943 36 31 47 eta 943 36 17 52.  
**TAILERRA:** Oialume bidea 24, Astigarraga  
info@illarreta.com

**ANTONIO ARREGUI, S.L.** eraikuntza materialak  
GAMMA

- Eraikuntza materialak orokorrean
- Zeramika
- Sanitarioak
- Komuneko konplementuak

www.gamma.es

**BILTEGI OROKORRA** Oria Etorbidea, 6  
20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 36 64 73  
aarreguisl@ya.com

**ERAKUSKETA** Goikale, 2  
20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 36 59 47  
Faxa: 943 36 59 47

Hurrengo GREMIOEN GIDAN PARTE HARTZEKO:

943 37 14 48 (106)  
646 82 44 66

publizitatea@ttakun.eus



Naroa Furundarena jauzi hirukoitzean egun Euskadiko onena dela berretsi du. N. FURUNDARENA

# Rekondo eta Furundarena, Euskadiko txapeldun

Sei herritar izan dira Durangon Euskadiko txapelketan lehian. Hiru domina lortu dituzte, urrezko bi eta brontzezko bat. Uztailaren 6an eta 7an, berriz, Naroa Furundarena eta Nerea Eugi Espainiako 20 urtez azpiko lehiaketan izan ziren

## Txintxarri

Jauzi eta jaurtiketa probetan abilak direla erakutsi dute beste behin LOKEko Naroa Furundarena eta Maider Rekondo gazteek. Uztailaren 13an eta 14an Durangon jokatu den Euskadiko txapelketa absolutuan urrezko dominak eskuratu dituzte biek. Baina abiadura proban ere izan zen saririk: Atletico San Sebastian

taldean dabilen Eneritz Bustok 110 m. hesi lasterketan hirugarren izan zen. Guztira sei herritar izan dira lehian.

Jauzi probetan trebea, Naroa Furundarena gazteak jauzi hirukoitzeko txapela eskuratu du.

Proba gaizki hasi dute lehiakide guztiek. Batek ere ez du baliozko jauzirik lortu. Bigarren jauzian,

ordea, beste arerioek gainditu ezin izan duten marka ezarri du, 11,53 m. Jauzi luzeagoa egin nahian, 11,84 metrora iritsi da denboraldi honetan, berak ere ez du zorterik izan. Gainerako jauziak balio gabeak izan dira.

Luzera jauzian ere parte hartu du LOKEko atletak. Finalerako sailkatu da, 5,36 metroko markarekin eta laugarren

postuan amaitu du proba, 5,45 metroko jauzia eginez.

Azken asteetan atsedeenik ez du izan Furundarenak; txapelketaz txapelketa izan da. Uztailak 6 eta 7, Granollersen Espainiako 20 urte azpiko txapelketan lehiatu zen luzera jauzian zein jauzi hirukoitzean eta azken proba horretako finalean izan zen lehian. Nahiz eta bosgarren postuan amaitu saioa, Espainiako laugarren izan zen gaztea.

## Disko-jaurtiketako finala

Disko-jaurtiketa proban bi ordezkari izan ditu LOKEk, Maider Rekondo eta Oihana Igarritz. Rekondok LOKEren bigarren urrezko domina eskuratu du.

Rekondok ez du lehengo saiakeran baliozko markarik lortu, Furundarenaren antzera. Bigarren jaurtiketan, ordea, 39,69 metrora bidali du diskoa eta arerioek ezin izan dute marka hori hautsi.

Aipatu legez, proba berean lehiatu da Oihana Igarritz LOKEko taldekidea. Bere marka onenetik gertu ibili da gaztea, 31,02 m.

Lehen jaurtiketan podiumean zegoen, hirugarren jaurtiketarik onena zen, baina lehiaketak aurrera egin ahala postuak galdu ditu gazteak, ezin izan baitu marka hori gainditu. Seigarren izan da amaieran.

## Abiadura ere podiuma

Abiadura probetan ere izan da Lasarte-Oriako ordezkariarik. Atletico San Sebastian taldeko Eneritz Busto gazteak, gainera, hirugarren postua lortu du 110 m. hesi proban.

Sailkapen saioan hirugarren denbora onena egin zuen eta

finalean ere postu berean amaitu zuen proba.

Txapelketan parte hartu duten beste bi herritarrek Jose Ramon Latorre eta Atletico San Sebastian taldeko Nerea Eugi izan dira eta biak 100 m. lasterketan lehiatu dira. Sailkapen saioan izan dira kaleratuak.

Eugik aurreko astean, 100 m. eta 200 m. lasterketako probak egin zituen 20 urte azpiko Espainiako txapelketan. Lehen proban ez zuen zorterik izan eta ez zuen sailkapen saioa gainditu. 200 m. proban urteko bere marka hobetu zuen, 26,33 sg.

Euskal Herriko txapelketa gehientzako denboraldiko azken proba izan da. Ez ordea Maider Rekondorentzat. Federazio arteko Torneoan parte hartu du Iruñean, larunbat honetan.

## Denboraldi berria

Denboraldi amaiera honen irakurketa ona egin du LOKEko arduradun Oscar Goikoetxeak eta hurrengora begira berrikuntzak iragarri ditu.

Izan ere, maiatzean berri eman genuen bezala, hurrengo denboraldian Lasarte-Oriako aldaketa nabarmen bat izango da atletismo alorrean. Amaia Andres eta Oscar Goikoetxeak zuzentzen duten taldea Ostadar SKTko parte izango da irailetik aurrera.

Atalak atletismo eskola, federatuak eta atletismo herrikoia jorratuko ditu.

## LASARTE-ORIAKO ATLETEK HIRU DOMINA LORTU DITUZTE EUSKADIKO TXAPELKETAN

## Arraun Lagunak eta Hondarribia, Orio mendean hartu ezinda

Arraun Lagunak bigarren izan da Euskotren Ligako jardunaldietan; Hondarribia ordea, Gipuzkoako txapelketan

## Txintxarri

Orioko eskifaiak garaiezina dirudi. Euskotren Ligako buruan dago eta Gipuzkoako txapelketan ere lehena izan da. Arraun Lagunak eta Hondarribia traineruak nagusitasun hori

hausten saiatu dira, baina oriotarrak indartsu daude denboraldi erdian.

Aiora Belartietarra arraunlari den Arraun Lagunak taldea Euskotren Ligako bigarren postuan da. Nahiz eta Orioko trainerua gertu izan

duen batzuetan, ezin izan du azken lau jardunaldietan garaipenik eskuratu.

Gipuzkoako txapelketan, gainera, Intza Fernandez Hondarribiak lapurtu die bigarren postua donostiarrei. Hondarribiako traineruak Ligako aho zapore txarra kendu ahal izan du horrela; laugarren postuan baitaude. Hala ere, Donostiarrak taldetik oso puntu gutxira dago. Ligan mantentzeko lehia handia izango da bi talde hauen artean.

## Gaztetxoek urpolo taldea osatu nahi du Buruntzaldea IKTK

Lasarte-Oriako gaztetxoek urpoloan lehen pausoak emateko aukera izango dute Buruntzaldea IKTren eskutik.

2006 eta 2009 urte artean jaiotako haurrek parte hartu ahal dute jarduera honetan. Bi taldetan banatuko dira jaiotze urtearen arabera, alebinak edo infantilak, eta bi saio edo hiru egingo dituzte astean.


Jardueran izena emateko antolatzaileek igeri egiten jakitea ezinbestekoa dela azpimarratu dute.

Bestalde, maila guztietako igeriketa saioetako inskripzioa ere irekia du Buruntzaldea IKTK.


[www.buruntzaldeaikt.eus](http://www.buruntzaldeaikt.eus) blogean, 696 506 632 telefono zenbakian edo [info@buruntzaldeaikt.eus](mailto:info@buruntzaldeaikt.eus) helbidean eskuratu daiteke izena emateki buruzko informazio gehiago.

Irailaren 16an emango dio hasiera igeriketa taldeak 2019-2020 denboraldiari.

## KOMIKIA



## ZORION AGURRAK



**Lur**  
Zorionak marisorgiña!!! Azkenean iritsi da 5 urte bete dituzun eguna!!! Mila muxu eta besarkada zuretzat etxeko guztien partetik. Asko maite zaitugu bihurri. Aitatxo, amatxo eta Nahikari.




**Oier**  
Zorionak bihotza!!!



**Ekhi**  
Mila zorion gure etxeko eguzkitxoaril 4 urte jada, zure poztasuna ematen hasi zinela... Infinito maite zaitugu; Nahia, Amatxo eta Aitatxo.




**Nerea**  
Zorionak!!! Ongi ospa dezazula zure eguna. Ttakun Kultur elkarteko kideen partetik.




**Katixa**  
Zorionak panpoxa!! Ondo bizi 14 urteak, ez dituzu berriro biziko eta!! Etxekoen partez.

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN


**Astelehena, 29**




**Asteartea, 30**




**Asteazkena, 31**




**Osteguna, 01**




**Ostirala, 02**



**Larunbata, 03**



**Igandea, 04**



## TELEFONOAK

### UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTTERI AEK: 607 625 233

### LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINZA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## SUDOKUA

3	4	2	1			6		7
	9	7		2		1		8
		1		7			2	
		9	6			7		
1		5		8		4		2
7					5			
	1		4		9	2	7	
	2			5			8	
9			8		2			1

## JAIOTAKOAK

**Adrian Rubio Ruiz.** Uztailaren 21ean.

## HILDAKOAK

**Karmele De la Barreda Perez.** Uztailaren 19an.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Astelehena, 29 LASA

Asteartea, 30 DE MIGUEL

Asteazkena, 31 ORUE

Osteguna, 01 GIL

Ostirala, 02 ACHA-ORBEA

Larunbata, 03 LASA

Igandea, 04 LASA

### EGUNeko FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

### GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbieta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

### Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.

Gehieneko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

## OHARRAK

### Kirol instalazioen itxiera

Urteroko geldialdi tekniko delarik, Lasarte-Oriako udal kirol-instalazioak itxita daude aste honetan. Abuztuaren 5ean jarriko dituzte berriro martxan eta udako ordutegia mantenduko da.

Astegunetan Maialen Chourraut kiroldegia, 7:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 22:00etara egongo da irekia; igerilekua goizez 12:30ak arte eta arratsaldean 21:30era arte erabili ahalko da eta Michelin kirol gunea 10:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 22:00etara.

Asteburuetan eta jai egunetan, berriz, kiroldegiko eta igerilekuko ordutegia 09:00etatik 14:00etara izango da. Kirol gunea larunbatetan bakarrik egongo da erabilgarri, 09:00etatik 13:00etara.

### Odol ateratzea

Lasarte-Oriako odol emaleek hitzordua dute gaur, astelehena. Hilabeteko azken astelehenean egin ohi duten odol ateratzea egingo dute arratsaldeko 17:30etik 20:30era Osasun Zentroan.

**ESKELAK JARTZEKO**

**TEL: 943 37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**  
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

**Txintxarri: doan eta euskaraz**  
**Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48**

## AZOKA TXIKIA

### LANA

#### ESKAINITZA

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz inhes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Zerbitzaria behar da Zubietako landetxean lan egiteko. Telefonoa: 943 363 358.

TXINTXARRI aldizkariak banatzaileak behar ditu. Ostiraletan 5-6 orduko lanaldia, kontratuarekin. txintxarri@txintxarri.eus edo 943 37 14 48.

Logikale enpresak hiru teleoperadore postu bete behar ditu, Hernanin. Sei hilabeteko kontratua. Gaztelania eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. 943 31 86 06.

#### ESKARIA

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da

adineko pertsonak zaintzeko eta ebeko lanak egiteko. Interna edo externa bezala. 663 488 438.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Orduka, jaiegunetan, zein asteburuetan. Ospitalean gauak ere egiteko prest. 606 661 048.

Orduka lan egiteko prest nago, haurrak zaintzen edo garbiketarak lanak egiteko. Telefonoa: 722 178 177.

Pertsona bat eskaintzen da zaintzaile gisa lan egiteko orduka, gauetan... Ziurtagiria eta urtetako eskarmentua. 652 246 070.

### BESTELAKOIA

#### HEZKUNTZA

Ingeles klaseak ematen dira, maila guztiak. Telefonoa: 693 601 222.

## NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


### TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

### TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus) 646.824466

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

**txintxarri**

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

#### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

#### Administraria

Nerea Garziarena.

#### Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,  
Maitane Aldanondo eta Beñat Lizaso.

#### Publizitatea

Iraiti Zatarain.

#### Laguntzaileak

Gorka Lasa, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexu Artebe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

#### Banatzaleak

Ioar Gáinza, Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Iñaut Gonzalez de Matauco eta Haritz Esnal.

#### Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

#### PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

#### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus)

#### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

#### Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



## ASTELEHENA 29

### LASARTE-ORIA Erakusketa

Karmelo Oñateren mendiko marrazkien erakusketa ikusgai dago uztailaren 31ra arte. Eskoriatzarrak mendian praktikatzen dituen diziplina ezberdinetan bizitako uneak irudikatzen ditu.

Jalgi Kafe antzokia.

### ZUBIETA Jaiak

Umeen eguna ospatuko dute Zubietan:

10:00etan, jolasen hasiera.  
13:30ean, umeen bazkaria.  
Bakoitzak bere bazkaria emango du; postre sorpresa antolatzaileen eskutik.  
16:00etan, puzgarriak.  
Ondoren, txokolatada eta buruhandiak.  
Amaitzeko, apar festa.  
Zubieta, egun osoa.

### DONOSTIA Jaiak

Amara Zaharrea San Inazioak ospatzen ari dira:

16:00etan, 3x3 saskibaloitxapelketa, Arroka plaza.  
17:00etan, Fede Casanova memoriale eta haur eskupilota txapelketa, pilotalekua.  
19:00etan, 2. futbolin txapelketa, Lau taberna.  
Amara Zaharra, 16:00etatik aurrera.

## ASTEARTEA 30

### LASARTE-ORIA Jaiak

Basaundiko jaiak hasiera emango diete:

17:30ean, buruhandiak, Basaundi bailarako plaza eta inguruak.

17:30ean, apar festa, tenis pista.  
Ondoren, ur-pistola eta puxika guda, Oria txiki parkea.

18:30ean, zumba eta jumping saioa Saito gimnasioaren eskutik, pilotalekua.

20:00etan, Gautxori txaranga, Basaundi bailarako plaza eta inguruak.

23:00etan, dantzaldia Ibai Berriak taldearen eskutik, Basaundi bailarako plaza.

Basaundi auzoa, 17:30etik aurrera.

### ZUBIETA Jaiak

Gaupasa eguna ospatuko dute Zubietan:

16:00etan, mus txapelketa. Ordu erdi lehenago irekiko dute izen ematea.  
16:30ean, herri olinpiadak: herri kirolak, sukaldaritza, trebezia eta buru-jokoak.  
00:00etan, Kontzertuak:  
Kilimak  
Gozategi  
DJ XD mixarekin goizaldera arte  
Zubieta, 16:00etatik aurrera.

### DONOSTIA Jaiak

Amara Zaharrea San Inazioak ospatzen ari dira:

18:00etan, haurrentzako antzerkia, Easo plaza.  
18:00etan, botea, Easo plaza txikia.  
18:30ean, Kaña2kaña taldearen kalejira auzotik.  
19:00etan, buruhandiak.  
20:00etan, DJak, Easo plaza txikia.  
20:00etan, danborrada.

22:30ean, Mexikortxos eta Larrion gozo taldeen kontzertua, Easo plaza.  
00:30ean, kroketa lehiaketa, Easo plaza.

Amara Zaharra, 18:00etatik aurrera.

## ASTEAZKENA 31

### LASARTE-ORIA Jaiak

San Inazio eguna ospatuko dute:

09:00etan, martxa erregulatua. Irteera, Basaundi bailarako plaza.  
09:00etan, galeper-jaurtitzea, Zapal zelaietan. Buruntz-Azpi elkarteak antolatua.  
11:00etan, haur jolasak, pilotalekua.  
11:30ean, meza Amaia Dorronsoro organu joleak girotua, Karmengo Amaren kapera.  
12:00etan, txoko herrikoia, pilotalekua.  
12:30ean, bote eta toka txapelketa, auzoko plaza. Buruntz-Azpi elkarteak antolatua.  
14:30ean, bazkari herrikoia, Buruntz-Azpi elkarteak.  
16:00etan, mus txapelketa, auzoko plaza.  
17:00etatik aurrera, haurrentzako jarduerak, pilotalekua:  
Aurpegia margotzeko tailerra  
Gatzelu puzgarriak  
Askaria  
18:00etan, patata tortilla lehiaketa, auzoko plaza.  
19:30ean, jaiak amaiera emateko kontzertua izango da. Adara y los Nylon taldearen doinuez gozatu ahal da. Kultur Kale Zikloaren emanaldia.  
Basaundi auzoa, egun osoa.

### LASARTE-ORIA Jaiak

Basaundi bailarako auzoko elkarteak San Inazioa eguna ospatzeko bi egunetako egitaraua antolatu du. Askotariko hitzorduak izango dira haur, gazte eta helduen gozamenerako. Asteartean hasiko dira jaiak eta hurrek izango dute protagonismoa. Buruhandiak, apar festa eta ur guda izango dira. Gautxori txaranga eta Ibai Berriak taldeak girotuko dute gaua. San Inazio egunean, berriz, kirola, mahai jokoak, haurrentzako jarduerak eta lehiaketak egingo dituzte, baita ohiko meza nagusia ere. Jaiak amaiera emateko, Adara y los Nylon taldearen kontzertua izango da. Asteartea eta asteazkena, Basaundi bailara.

### LASARTE-ORIA Bazkide eguna

Lasartearra elkarteak bazkideen eguna ospatuko du.

Lasartearra elkarteak, 11:00etatik aurrera.

### ZUBIETA Jaiak

San Inazio egunak amaiera emango die Zubietako jaiak:

09:00etan, zikiroa prestatzen hasiko dira.  
10:30ean, meza.  
11:30etan, zubietarren arteko errebote partida.  
14:00etan, zikiro jatea.  
18:30ean, Lopene ganadutegiko zezen txiki eta poniak.  
Ondoren, buruhandiak.  
23:00etan, herriko jaien amaiera traka eta suziriek.  
Zubieta, egun osoa.

### DONOSTIA Jaiak

Amara Zaharrea ere San Inazio eguna ospatuko dute:

12:00etan, toka, Easo plaza.  
13:00etan, tortilla lehiaketa, Easo plaza.  
19:00etan, herri kirolak, Easo plaza.  
Aizkolariak eta harrijasotzaileak.  
21:00etan, afari herrikoia, Easo plaza.  
00:00etan, jaien amaiera, Easo plaza.  
Amara Zaharra, egun osoa.

## OSTEGUNA 1

### HERNANI Udapardean

Udapardean ekimenaren 4. edizioak kultura eta aisialdiz betetako egitaraua dakar:

19:30ean, *El fedito* malabareak eta oreka jokoan ikuskizuna.

20:30ean, La Burla Teatro konpainiak *Económicas* lana aurkeztuko du.

22:00etan, *Horman erlojua duen etxea* filma eskainiko dute.

Eguraldi txarra eginez gero, Atsegindegina egingo da.

Ave Maria parkea, 19:30etik aurrera.

## OSTIRALA 2

### HERNANI Udapardean

Udapardean ekimenaren 4. edizioak kultura eta aisialdiz betetako egitaraua dakar:

18:00etan, *Plisti Plasta* eta *Toc de Fusta* jolasak.

20:00etan, *Lau eme* ikuskizuna eskainiko du Haatik konpainiak.

20:30ean, Ertza dantza taldeak *Meeting point* dantza ikuskizuna eskainiko du.

22:00etan, *Korrontzi dantzan* emanaldiaz gozatu ahal da.

Eguraldi txarra eginez gero, Atsegindegina egingo da.

Ave Maria parkea, 19:30etik aurrera.

## LARUNBATA 3

### HERNANI Udapardean


Udapardean ekimenaren 4. edizioak kultura eta aisialdiz betetako egitaraua dakar:

19:00etan, Vaiven circo taldeak *Esencial* ikuskizuna eskainiko du.

20:30ean, 2ZIO rap taldeak kontzertua eskainiko du.

Eguraldi txarra eginez gero, Atsegindegina egingo da.

Ave Maria parkea, 19:30etik aurrera.



Atari digital berritua sakelakoetan ikusteko bereziki egokituta dago. TXINTXARRI

# Gero eta irakurle gehiago TXINTXARRIren olatuan

Otsailan abiarazi genuen TXINTXARRI-REN webgune berria, eta horrek hauspotuta, Internetez edo sakelakoan bisitatzen dutenen kopurua nabarmen hazi da azken hilabeteotan. Abuztuan, ikasturte honetan ikusienak izan diren edukiei errebasoa egingo diegu

## Txintxarri

Ikasturte oparoa izan da aurtengoa TXINTXARRI-arentzat, bereziki, bere webgunearentzat. Eguberritako opari balitz bezala, urtarrilean berrituta jaso genuen; azal eta mami aldatuta. Itxuraz gain, ordura artekoak ez zituen aukerak ere ekarri zituen. Horietako batzuk asteotan probatzen joan gara: zozketak,

argazki lehiaketak edo gaikako kanalak, kasu.

Horrek guztiak lasarteoriatar gehiago erakarri du gurera. Ez da lantaldearen baieztapena, Google Analytics tresnaren emaitzena baizik. Datu interesgarri bezain adierazgarriak dira azken sei hilabeteotan bildutakoak; urtarrilaren lehenetik uztailearen 11 artekoak,

zehazki. Bisitak, saio kopurua, iraupena, erabiltzaileak... Aztertutako parametro guztietan gora egin du atari digitalak.

Iaz sartzen zirenen erdia baino gehiago ibili da seihilekoan. Erabiltzaile kopuruak ere gora egin du, haietatik berriak direnen ehunekoak bezala, % 11 inguru. Hau da, 1.850 erabiltzaile izan ditugu tarte horretan, eta

haietatik berriak 1.781 izan dira. Halaber, joera bera jarraituta, erabiltzaile bakoitza gehiagotan, % 4,07, eta denbora luzeagoan, %37,15 ibili da gure atariko edukien artean. Ziur asko, webgune berriak edukiak bata besteari lotzeko ematen duen aukerak zerikusia izan du. Izan ere, saio bakoitzeko ikusten diren orrialdeen zenbateakoa ere nabarmen igo egin baita, % 33,68.

## Urteak emandakoa gainbegiratu



TXINTXARRIko lantaldeak merezitako oporrak hartuko ditu abuztuan. Pertsiana jaitsi aurretik, ordea, edizio jarrairik gabeko aste horietarako hainbat eduki prestatzen aritu gara. Hain zuzen ere, ikasturte honek eman duena gurekin errebasatzeko proposamena luzatu nahi dizugu, irakurle. 2018ko irailetik bi egun barru joango den uztailearen 31

artean, [www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) webgunean ikusienak izan diren albisteen bilduma osatu dugu.

Aipatutako tresnaren arabera, Google Analytics, hilabete bakoitzean irakurleengan interes gehien piztu duten hamar albiste ikusienak batu ditugu. Hiru egunean behin, hilabete bateko sorta laburbilduko duen bideo labur bat argitaratuko dugu, irailetik uztailetera. Hala, abuztuaren lehen irailakoak gogora ekarriko ditugu, eduki horien estekak eta osagaiak ere eskura jarrita, gehiago zabaldu nahi dutenentzat.

**AURTENGO LEHEN SEIHILEKOAN NABARMEN HAZI DA TXINTXARRIREN BISITA KOPURUA**

## TXINTXARRI.EUS-EN BISITA DATUAK



## Oporretara goaz!

TXINTXARRIren hurrengo zenbakia irailaren 6an kaleratuko dugu. Oharrak, zorion agurrak, gutunak... bidaltzeko:

txintxarri@txintxarri.eus • 688 68 35 10

